

AHOLKULARITZA JARDUNALDIAK 2011

Ahazkotik idatzira eta idatzitik ahozkoa: irakurketa partekatu

Proposamena

Aurtengo jardunaldiak proposamen zehatz baten inguruan antolatu ditugu gure egitasmoan erabiltzen hasi garen baliabide berri bat indartzeko asmoarekin. Liburu jakin batzuen irakurketa erabiliko dugu abiapuntu gisa, irakurketari proposamen andana bat lotuko diogu esperientzia bat partekatzeko jardunaldietara etorri eta nahi dutenen artean. Liburuaren irakurketaren ondorengo proposamenak bideratuko ditugu batik bat: ahozko edo idatzizko testuak sortu, baita beste edozein euskarri grafiko erabilia ere, ondoren sortu berria dugun blogean kokatzeko eta harreman bat sortzeko leku desberdinetako ikasleen artean.

Helburuak

- Kalitatezko liburu batzuk sakonki ezagutu.
- Irakurketa irizpideak landu.
- Ahots gorako irakurketa, motibazioa sustatzeko.
- Euskal haur literaturaren klasiko batzuk ezagutu
- Testuak entzun ondorengo interpretazio desberdinak bideratu: berridazketak, antzezpenak, ilustrazioak...

Materialak

- Gomendatzen dugu parte hartzaileek liburu batzuk lehenagotik ezagutzea:
- J.K. Igerabideren "*Jonas eta hozkailu beldurtia*" eta A. Schneider-en "*Handitzen naizenean txakurra izan nahi dut*", Haur Hezkuntzan eta LH-ko lehen zikloan. (Liburu bat aukeran)
- Bernardo Atxagaren "*Xolak badu lehoien berri*" eta Mariasun Landaren "*Iholdi*", LH-ko bigarren zikloan.
- P. Zubizarretaren "*Usoa, kapeta morea*" eta A. Gómez Cerdáren "*Medellingo lokatza*", LH-ko 3. Zikloan

Metodologia

- Lehenengo saioan liburuaren aurkezpenak eta proposamenak luzatuko dira, zer egin eta nola.
- Bigarren saioan aztertuko dira bideratu diren esperientziak, ondorioak eta irakurketa irizpideak landuko dira.

LEKUAK ETA DATAK

Mintzola Fundazioa, martxoaren 22an eta maiatzaren 24an, goizeko 9:30etatik 13:30etara.

Helbidea: Subijana etxea, Kale Nagusia, 70. Villabona

Izen emate epea: martxoaren 7a

Durango berritzegunean, martxoaren 24an eta maiatzaren 26an, goizeko
9:30etatik 13:30etara.
Helbidea: Bernardo Gabiola, 5 A. Durango
Izen emate epea: martxoaren 7a